

## **Baztan ikergai duten ikasketa akaberako proiektu edo lanak egiteko 2022 urteko diru-laguntzaren oinarriak**

### **Lehendabizikoa. Diru-laguntzaren xedea**

Baztango udalak Baztan ikergai duten ikasketa akaberako proiektu edo lanak egiteko diru-laguntza proposatzen du. Master akaberako lanak ere onartzen dira.

### **Bigarrena. Kopurua**

Deialdi honi 2.000 euro esleituko zaizkio, gehienez ere, Udalaren 2022. urteko aurrekontuko "1-3269-48000.02 DIRU-LAG. BAZTAN IKASKETA AMAIERA LANAK" kontusailaren kargura esleitu ere (2021ko aurrekontuetatik luzatutakoa). Diru laguntza partida agortzearekin ez dira proiektu gehiago diruz lagunduko. Horretarako, balorazio batzordeak aurkeztutako proiektuen artean puntuazio gehien jaso duten 4 proiektuei diruz laguntzeko proposatuko du.

Hautatutako proiektu edo lan bakoitzari dagokion diru-laguntza 500 eurokoa izanen da.

### **Hirugarrena. Eskatzaileen baldintzak**

- Baztango udalerrian errolda izatea edo eta beste udalerrri batean koiunturalki erroldatua egon baina horren arrazoia kanpoan ikasketak burutzea dela justifikatzea, baldin eta aurreko errolda Baztanen izan bada.
- 2021/22 ikasturtean azkeneko kurtsoan matrikulaturik egotea.
- Baztango udalarekin zorrik ez izatea.

### **Laugarrena. Argitalpena**

Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Baztango Udalaren webgunean, udaletxeko iragarki-oholean eta eskualdeko komunikabideetan iragarriko da.

### **Bortzgarrena. Aurkezteko epea eta lekua**

Aitzineko ataletan heldu diren baldintzak betetzen dituzten eta beren burua deialdirat aurkeztu nahi duten ikasleek, Eranskinean heldu den bezala, eskaria egin beharko dute hilabeteko epean deialdi hau Nafarroako

ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta biharamunetik aitzina Baztango udaleko erregistroan.

### **Seigarrena. Eskararekin batera aurkeztu beharreko agiriak**

\_Eskariarekin ikasleek eginen duten proiektuaren edo lanaren memoria aurkeztuko dute, gehienez lau orrikoa. Bertan helburuak, metodologia, iturriak, oinarritzko bibliografia, ... zehaztu daitezke. Memoria honek ikasketa akaberako proiektu eta lanaren tutorearen ongi ikusia beharko du.

\_Nortasun Agiri Nazionala.

\_Zinpeko aitordena, Baztandik kanpo koiunturalki erroldatua dagoela ikasketak Nafarroatik kanpo egiten dituelako.

\_Laguntza zein banku-kontutan jaso nahi duen eta hori eskatzailearen izenean dagoela ziurtatzen duen banku-etxearen agiria.

\_Aipatu agiri horiek jatorrizkoak izan behar dute, edo bestela, kopia konpultsatuak.

Aurkezturiko dokumentazioa osaturik ez badago, interesdunari dagokion dokumentazio osagarria hamar eguneko epean aurkeztea galdeginen zaio.

### **Zazpigarrena. Lana edo proiektuaren aurkezpena.**

Eskatzaileak ikasketa akaberako proiektua edo lana memoriaren arabera egin beharko du eta laguntza emanen zaiola jakinarazi ondotik urte bateko epean; betiere, tutorearen ongi ikusiarekin. Epea gairiditurik ez da lanik onartuko eta udalak emandako diru-laguntza erreklamatzeko ahalko du.

Lana edozein hizkuntzatan burutzen ahal da.

### **Zortzigarrena. Balorazio, kudeaketa eta ebazpen organoak**

Aurkeztutako memoriak eta proposamenak helburu horrekin osaturiko batzordeak baloratuko du. Bertan Elizondoko lanbide eskolako zuzendaria, Lekarozko institutuko zuzendaria, Garalurreko teknikaria, Baztango alkatea eta udal idazkaria egonen dira. Batzordeak arloko adituekin kontsultak egiten ahalko ditu.

Ebaluazio batzordea izanen da bekaren inguruko prozedura bideratuko duen organoa, eta proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzordeari, ebazteko eskumena duen organoa.

Nolanahi ere, beka eman gabe utz daiteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako proiektuetatik bakar batek ere ez badu gutxieneko kalitaterik erdietsi.

#### **Bederatzigarrena. Balorazio irizpideak.**

Ebaluazio batzordeak memoriak gaien interes soziala, bailarako erronkak lantzeko duen ahalmena, originaltasuna, erabilitako metodologia, proposaturiko arazoak konpontzeko gaitasuna, hizkuntza, hizkuntzaren kalitatea eta sintesi ahalmena kontuan hartuz hautatuko ditu.

#### **Hamargarrena. Esleipenaren ezeztatena, betebeharrak ez betetzeagatik.**

Baldin eta esleipendunak ez baditu oinarri hauek ezarritako epeak (lana aurkeztekoak edo epaimahaiari lanaren egoeraren berri ematekoak) errespetatzen, edo eskatutako agiriak ez badira aurkezten, edo lanak ez baditu proiektuan ezarritako ezaugarriak bete, edo proposatutako lana baino aise ere kalitate gutxiagokoa bada, balorazio batzordeak Udalaren organo eskudunari eskatzen ahalko dio laguntzaren esleipena ezeztatzeko. Kasu honetan, ez da diru-laguntzarik jasoko.

#### **Hamaikagarrena. Laguntzaren ordainketa.**

Diru-laguntzaren ordainketa deialdi honetan eskatutako dokumentazio agiri guztiak aurkeztu eta balorazio batzordeak aurkeztutako lanei bere oniritzia eman eta ondoren gauzatuko da.

#### **Hamabigarrena. Lanaren argitalpena.**

Lana argitaratzen bada udalari 10 ale dohainik eman beharko zaizkio.

Deialdian parte hartzen dutenek horri buruzko arau oro onartuko dituzte eta men eginen diete Baztango Udalak hartzen ahal dituen erabakiei; epaia apelaezina izanen da. Lehiaketaren oinarriak ez betetzeak lehiakidea kanporatzea ekarriko du berekin.

#### **Hamahirugarrena. Arau-hausteak eta zehapenak.**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, xedatutakoak aginduko du.

#### **Hamalagarrena. Datuen babesa.**

Eskatzaileen datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

### **Hamabortzgarrena. Aplikatuko den araudia.**

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Toki-Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Foru Legea, azaroaren 17koa, aplikatuko dira.

### **Hamaseigarrena. Ebazpena eta helegiteak.**

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko. Emanen diren administrazio-ebazpenen aurka ondoko errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

\_Berraztertzeko errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.

\_Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.

\_Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

## ERANSKINA I. Parte hartzeko eskaria

Jaun/ Andrea:

NAN:

Telefonoa:

Helbidea:

Baztango udalak ikasketa akaberako proiektuak edo lanak bailararekin zer ikusia duten gaiei buruz egiteko antolatu duen deialdirat aurkezten naiz, horretarako, deialdiaren oinarriak eskatzen duen dokumentazioa aurkezten dut:

Baztanen, 2022ko,

n,

a.

Eskatzailearen sinadura:

Aurkezturiko dokumentazioa:

- a) Eskaria ERANSKINA.
- b) Lana edo proiektuaren memoria eta tutorearen oniritzia duela ziurtatzen duen agiria.
- c) Eskatzailearen curriculum vitae.
- d) Ikasketa akaberako proiektu edo lanean matrikulaturik egotearen egiaztagiria.
- e) Errolda agiria edo zinpeko aitortza, erroldatzea kanpoan izatea ikasketa kanpoan egiteagatik dela adieraziko duena.
- f) Banku-kontua adierazten duen banku-etxearen agiria.